



Bilboko Euskal Eskola Publikoaren aldeko plataforma Bilboko sare publikoko familiek eta langileek osatzen dute, eta aktiboki parte hartzen du Euskal Eskola Publikoa Harro Topagunean (<http://www.plataformaeskolapublikoa.eus>).

Matrikula epea otsailean zabalduko dela baliatu nahi dugu ahalik eta ikasle gehien gureganatzeko, ikastetxe bakoitza egiten ari den kanpaina osatuz. Ikastetxeak lanaz gainezka badabiltza ere, esfortzu komuna egitea eskatu nahi dizuegu:

- Honekin batera doan **dokumentuari atxikitu** ahal duzuen moduan: klaustroaren izenean, irakasleen/langileen taldeak, familiak, banakakoak... eta guri helarazi.

bilbokoeskolendefentsan@gmail.com

- **Urtarrilaren 27an** Deustuko Ikastolan (metroaren Iruña / irteeraren ondoan) 17:30etan egingo dugun **bilerara etortzea**, bertan erabakiko dugu komunikatua nola bideratu, eta elkarrekin lan egiteko aukerak aztertuko ditugu.

MATRIKULA, BILBOKO IKASTETXE PUBLIKOAN HOBE

Ikastetxe publikoetako partaideok Bilboko sare publikora etortzeko deia egin nahi dizuegu 25/26 ikasturterako matrikula egin behar duzuen guztiei.

Haur eskoletan hasita eta unibertsitateraino helduta, gertu duzu ikastetxe publiko bat, zuretzat zabalik. Ez duzu umea bidaia behar, ezta bilbotarrontzat kutsadura handitu edo trafikoa areagotu ere, lehen hezkuntzatik aurrera ikaslea oinez joan daiteke bere kabuz lagunekin, are gehiago "bide seguruak" izeneko programa martxan badago ikastetxean.

Eskola publiko euskalduna duzu eskura. Hizkuntza guztiak altxorrek direlarik, guk euskara bereziki zaindu eta landu behar dugu, nork, bestela? Euskara ikasle guztientzat izatea dugu helburu, kohesio tresna bihurtuta. Eskola Publikoa euskalduntzea belaunaldi batzuetako familien eta langileen borrokaren emaitza da, harro gaude.

Eskola segregazioa, hau da, ikasleak jatorriaren, egoera sozioekonomikoaren edo familien sinismenen arabera sailkatzea, batzuentzat kaltea eta besteentzat pribilegioa dela uste izan da, baina gehiegikeria horrek gu guztiok kaltetzen gaitu, bereziki arrazakeria eta xenofobia hazten ari diren honetan. Haur guztiek berdintasunean ikasteko eskubidea dute, bereizkeriak inorantzia baino ez dakarkie.

Bilboko udalari eta Hezkuntza Sailari eskatzen diegu sare publikoaren alde lan egin dezaten, hezkuntza sistema hobetzeko eta Bilboko auzo eta kale guztietan kohesioa eta bizikidetzat sustatzeko.

Sare publikoa denon artean eraikitzen dugu egunero, gu guztion esfortzuak, ametsak, borrokak eta ezagutzak eskola publikoaren parte dira, zenbat eta gehiago izan, ikastetxe osatuagoak eta hobeak egingo ditugu.

Asko gara, zatoz gurekin!

zaindu maite
dun hori



Asko gara, zatoz gurekin!

Matrikulatu Euskal Eskola Publikoan, guztiona!

Somos un montón. ¡Ven y únete a la Escuela Pública Vasca, la nuestra, la tuya!

AGERRALDIA/CONVOCATORIA:

EGUNA/DÍA: URTARRILA 27 ENERO

ORDUA/HORA: 17:30

IEKUA/LUGAR: DEUSTUKO IKASTOLA